

Noaia!!!

www.noaia.com



Udako Txokoak Aginagan



Pintore ikastaroa 2008-2009

Izena emateko epea ireki da

KOMERTZIAL DISEINATZA NOAUA!

KOMERTZIAL DISEINATZAILEA BEHAR DA NOAUA! KULTUR ELKARTEAN IRAILETIK AURRERA

FUNTZIOAK:

NOAUA! astekariko eta noaua.com webguneko publizitate-arduraduna.
Eginbehar nagusiak: publizitatea lortu, publizitate moduloak diseinatu eta bestelako diseinu lanak.

PROFILA:

- Publizitatean lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere) edo diseinu ikasketak eginda izatea.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.
- EGA edo balokidea den agiria izatea baloratuko da.
- Gida-beimena izatea baloratuko da.
- Komunikatzaile ona eta teknologie berrietan trebatua izatea.

ZER ESKAINTZEN DA:

- Lau orduko lan-saioa gizarte segurentzarekin.
- 6 hilabeteko kontratua, luzatzeko aukerarekin.

Curriculum-ê uztailaren 26a baino lehen ekurri edo bistali.

NOAUA! Kultura Elkartearen Bontziabarr 3, 20170 Uleke. || iraila@noaua.com | www.noaua.com

kaffa



· %100 Kolonbiako kafea alean edo eho berria etxera eramateko "La casa del cafe".

· Batido naturalak.

· Ezeizako tarta edo pastelak enkarguz.

· Sukalde tradizionalan eginko otorduak prestatzen dira aurrez eskatuta.



ERREKATXIKI, 2
USURBIL
Tel.: 943 24 33 71



Uztailaren 24an kaleratuko dugu ikasturte honetako azken NOAUA! astekaria.

Irailaren hasieran argitaratuko dugu hurrena.

Uda honi begira ohar, albiste, zorion agur... edo iragarkiren bat ipini nahi baduzu, gogoan izan uztailaren 21a baino lehen ekarriko beharko duzula.

erredakzioa@noaua.com

Albistea iruditan !!

Aurtengo jaiekin gustura

Santixabeletako jaiak antolatu eta ospatu ondoren, orain balorazioa egiteko unea iritsi da. Jai Batzordeak bilkura egin zuen Sutegin aurreko astelehenean.

Sutegi kultur etxeko erakusketa aretoa herriko jaiak aztertzeko biltokian bihurtu zen aste hasieran. Bertan ziren, Santixabeletako jai egitaraua osatzen duten ekitaldien antolatzaileak eta udal ordezkariak. Aurtengoek utzi digutenari buruz jardun zuten Jai Batzordeko kideek. Banan bana, eta datorren urteko jaiari begira, eragile bakoitzak antolatutako ekitaldiaren nondik norakoak azaldu zituen.



BALANTZEA EGITEKO JENDE UGARI BILDU ZEN ASTELEHENEAN SUTEGIN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mairder Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

EÑAUT ZURIARRAINEKIN SOLASEAN **8. OR.**

BERRITUA DATOR PINTORE IKASTAROA **10. OR.**

AGINAGAN ERE UDAKO TXOKOAK **12. OR.**

ANDATZAKOAK PIRINIOETAN IZAN DIRA **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Sagastientzako dirulaguntza berriak iragarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak hurrengo hilabeteetan dirulaguntza berri batzuk jarriko ditu martxan sagastiak dituzten nekazariarentzat. Orain arte, landaketa zen diruz laguntzen zuena. Baina aurrerantzean, sagastien egoera hobetzeko ere bideratuko da beste dirulaguntza berri bat.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak Sagardonat izeneko aldizkaria plazaratzen du. Uztaileko alean aipatzen duenez, Foru Aldundiak dirulaguntza berri bat eskainiko du udazkenetik aurrera. Diputazioak aspalditik ematen ditu dirulaguntzak (lehenengo eta hirugarren urterako landaketak) sagardorako landatzen diren sagarrondoetarako.

SAGASTIAK HOBETZEKO

“Sagastien egoera hobetzeko bideratuko da dirulaguntza berria: sagastiak garbitzeko, bideak txukuntzeko, hesiak jartzeko...”

Orain, sagastien egoera hobetzeko (garbitzeko, bideak txukuntzeko, hesiak jartzeko eta abar) plan berri bat jarriko da abian.

Dirulaguntza deialdia, urrian

Horretarako, laster aterako dira, urria aldera edo, dirulaguntza-eskabi-dea egiteko baldintzak. Datu zehatzak aurreratu gabe, baina horrela eman



SAGASTIAK BABESTU NAHI DIRA DIRULAGUNTZA HAUEN BITARTEZ.

zuen aditzera Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren dipu-

tatua den Rafael Uribarrenek, VII. Sagardo Lehiaketaren sari banaketaren uean.

VII. Sagardo Lehiaketan

Saizar sagardotegia finalera iritsi zen

VII. Sagardo Lehiaketan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak lehiaketan, Saizar sagardotegia finalera iritsi da. Sari nagusia, ordea, Astigarragako Irigoien-Herrero sagardotegiak irabazi du aurten. 2.250 euro, txapela eta garaikurra eskuratu ditu. Bigarren, Hernaniko Zelaia sagardotegia izan zen eta hirugarren, Hernaniko

Altzueta.

Donostiako Igeldo sagardotegia, Tolosako Isastegi eta Usurbilgo Saizar izan ziren beste finalistak.

Aurtengo edizioan 35 sagardogilek hartu dute parte, inoiz baino gehiago. Eta epaimahaikide eta antolatzaileen esanetan, sagardoaren kalitate maila oso ona izan da.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
K. AMILISTEEN IMPRIMOKETA
943 371 954
UGALDEA PDL.36-2-USBIL

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USBIL

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Kirol arloko hitzarmena berritu dute Buruntzaldeko lau udalek

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek kirol arloko hitzarmen berria sinatu zuten pasa den uztailearen 11n. Indarrean dagoen hitzarmenari jarraipena emango dio datorren irailaren 1etik aurrera. Sinatzaileen borondatea, bailara mailako elkarlana beste arloetara zabaltzea da.

Herritarrei zuzendutako kirol zerbitzuak hobetu eta euskalduntzea da Buruntzaldeko lau udaletako ordezkariak sinatu berri duten kirol hitzarmen berriak bete nahiko lukeen helburu nagusia. Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udaletako ordezkari bana egon zen pasa den uztailearen 11n, Lasarte-Oriako udaleko batzar aretoan burutu zen sinatze ekitaldian. Oraingo honetan, Hernaniko Udalak bertatik kanpo geratzea erabaki du.

HERNANI, KANPOAN

“Hitzarmen berrian,
Hernaniko Udalak kanpoan
geratzea erabaki du”

Kirola eta euskara dira dagoeneko irailaren 1etik aurrera, indarrean sartuko den hitzarmen berrituaren ardatz nagusiak. Horregatik, alde batetik, udalerrri bakoitzak dituen baliabideak optimizatu nahi dituzte. Eta kudeaketa, ekipamendu eta eskaintzan, kalitatea bermatu. Aurrerantzean, bailara mailako ibilbideak baliatzeko, talasoterapia zentrotarako eta urpekaritza ikastaroetarako tarifetan hobariak txertatzea aurreikusten dute. Baita, orain arte bezala, Buruntzaldeko udalerrietako kiroldegietara joateko eskubidea ziurtatzen jarraitzea ere. Eskualde mailako kirol jarduerak ere bultzatu nahi dituzte; hala nola, Eskola-Kirolari lotutako lehiaketak, Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna



SINATZE- EKITALDIAN IZAN ZEN LONTXO ZUBIRIA, ARALARREKO ZINEGOTZIA
ETA KIROL PATRONATOKO LEHENDAKARIA.

edota squash txapelketa.

Kirol jardueretan euskara zenbat erabiltzen den ere ezagutu nahi dute. Horretarako, datu bilketa egin eta jarraipena egingo dute. Baina ez kirolarrien artean bakarrik, gauza bera burutuko baitute, kiroldegiek kontratatutako enpresatan ere. Hizkuntz irizpideak betetzen dituztela ziurtatzea izango da helburu nagusia.

Webgune bateratua

Herritarrengana informazioa helaraztea da, sinatzaileek hartu duten beste konpromisoa. Asmoa gauzatzeko euskarri moduan, kirol eskaintzari lotutako web orri bateratua eta herritarrei banatuko zaizkien informazio orriak baliatuko dira.

Elkarlana, beste eremuetara

Usurbilgo Udaleko zinegotzi Lontxo Zubiriak, Urnieta eta Lasarte-Oriako alkate Mikel Izagirrek eta Ana Urchueguiak hurrenez hurren, eta Andoaingo Udalaren izenean Fernando Narcisok sinatu zuten uztailearen 11ko kirol arloko hitzarmena. Lau udalen

nahia ordea, kirol jardueri eta euskara egitasmoen lotutako elkarlana eremu berrietara zabaltzea da. “Maila goragoko erakundeetan ez da gauza bera, herri edo bailara mailako planifikazioa aurkeztea”, gogoratu zuen Izagirrek. Batasunak indarra ematen duela gogorarazi zuten. Adibide gisa bailarako udalerrietako gobernu taldeetan dauden alderdi politiko desberdinak jarri ziren. Elkarlanaren bidez, helburu bakar eta berak, herritarrei eman beharreko zerbitzuak alegia, batu dituela adierazi zuten. Gero, beharrak eman ahala, gizarteak erantzuten duela baieztatu zuten prentsaurrekoan.

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriek bat egin dute hitzarmenarekin. Ez ordea Hernanikoak. Prentsaurrekoan, Hernaniri aurrerago gaia birplanteatu eta bailara mailako gainerako udalerriekin elkarlanera itzultzeko esperantza zutela adierazi zuten sinatzaileek.

Aipatu bezala, pasa den astean sinatutako hitzarmenak egungoa luzatu eta berrituko du. Irailaren 1etik aurrera indarrean izango da.

Haur Eskolaren etorkizuna bideratzeko urrats berri bat eman du udalbatza plenoak

Hilabete amaieran amaituko da indarrean den Haur Eskolaren kontratu luza-pena. Horregatik, Haur Eskolako udal zerbitzuaren ustipena esleitzea erabaki zuen udal ordezkarien gehiengoak, uztailearen 8an izan zen ezohiko osoko bilkuran. Orain, lizitazioaren deialdi irekia egingo da.

Datorren uztailearen 31n amaituko da iaz Haur Eskolarentzat epe luzerako konponbide bat aurkitu artean, behin behinean urtebeterako luzatu zen kontratua. Urtebete honetan, hainbat bilkura eta hausnarketa egin dute udal ordezkariak, hezkuntzaren alorrean inplikaturik dauden herriko eragileekin.

HAUR ESKOLA

“Zerbitzuaren kontrola Udalak bere gain hartuko luke, nahiz kudeaketa hirugarren bati dagokion”

Pasa den uztailearen 8an ezohiko osoko bilkuran, Haur Eskolaren zerbitzua emakida bitartez esleitzeko kontratazio espedientea presaz onartzea eta lizitazioaren deialdi irekia egiteari baiezkua eman zitzaion. Proposamena gehiengoz onartu zen, alde bozkatu baitzuten EAE-ANV eta PSE-EEko zinegotziek, aurka EAko bi zinegotzik (hirugarrena ez baitzegoen pleno aretoan bozketa unean) eta Aralarakoak abstenitu ziren.

12 urteko hitzarmena

Lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, interesdunek proposamenak aurkezteko hamar egun naturaleko tartea izango dute.

Zerbitzua emakida administratibo-



IRAILAREN LEHENEGAN SARTUKO DA INDARREAN HITZARMEN BERRIA.

an ematean, administrazio publikoak jartzen ditu kudeaketa baldintzak. Zerbitzuaren kontrola Udalak bere gain hartuko luke, nahiz kudeaketa hirugarren bati dagokion. Zerbitzuak funtzionatzeko, Udalak hitzartutako kopurua ordaintzen du.

Zerbitzua eskaintzeko modu honek epe jakin bat du; hamabi urtekoa baita kontratuaren iraupena, nahiz 25

urte arte luza daitekeen. Urteko eta haur usurbildar bakoitzeko 1.050 eurotako ia izango da kontratuaren prezioa, nahiz aipatu diru kopurua urtero berraztertu ahal izango den.

Lehenbizi udalerriko eskariari erantzuna emango litzaioke, eta gero, eskualdeko gainerako herritarrei. Zerbitzua abian jartzeko eguna finkatu dute; datorren irailaren bata.

Ugartondo eta Atallu hizpide lehengo asteko udalbatza plenoan

Hirigintzako bi gaiak bere tartea izan zuten uztailearen 8ko ezohiko osoko bilkuran. Ugartondo eremua eta Atalluko 6. exekuzio unitatea garatu eta udal jabetzako ondasun eta eskubideak eskuratzeko pauso berri bat eman zen. Udala eta Jauregizahar S.L. enpresaren arteko hitzarmen urbanistikoa jasotzen diren klausulak betetzeko beharrezkoak dira hainbat dokumentu eta agiri izenpetzea. Udal plenoak alkateari tramitazio hori gauzatzeko

ahalmena eman zion, alde bozkatu baitzuten EAE-ANV, EA, EAJ-PNV, PSE-EE-ko ordezkariak. Aralarako zinegotziak abstenitu ziren.

Bestalde, gai zerrendan txertatua zegoen hirigintzako gai bat zerrendatik kanpo utzi zuten. Hain zuzen, Ugartondo eremuko Barne Erreformako Plan Bereziari lotutako puntua. Alegazioei erantzun eta gaiari behin betiko onarpenera emateko asmoa zuten.

Eñaut Zuriarrain, Zubietako alkatea

“Zubietaren etorkizuna kolokan dago”

Donostiako Plan Orokorra aurkeztu zuten Zubietan pasa den uztailearen 7an, Gipuzkoako hiriburuko udaleko teknikariek. Ezer gutxi aipatu zuten ordea, Zubietarako dituzten egitasmoen inguruan. Herri Batzarreko alkate Eñaut Zuriarrainek aipatu bezala, erantzunik ez zubietarrek azaldutako kezka eta galderen aurrean.

NOAUA! Plan Urbanistikoaren aurkezpenean, Zubietari buruz ezer gutxi aipatu zuten.

Eñaut Zuriarrain. Bagenekien Altzan iskanbila izan zela. Hizlariek, bilera hasi baino lehen, gogorrena Zubietakoa izango zela aipatzen zuten. Lehen azalpena egin zuten. Benetan interesgarria zena azaltzerakoan ordea eta herriak euskaraz mintzatzeko eskatu arren, erdarara jo zuten.

DONOSTIAKO PLANAZ

“Donostiako Plan Orokorra aurkeztera etorri zirenak teknikariak ziren, baina teknikari papera ere ez zuten bete”

Erdaraz bukatu zuenean ere, esandakoa euskaraz errepikatze eskatu zitzaie. Baina berak ez zuela egingo. Zubietak herri izaera duen eta haien makroproiektu suntsitzaileak nahi ez dituen auzoa da. Hona ekarri nahi dituzte, hemen duten gozokia gozoezia baita.

N. Duten gozoki bakarra?

E. Z. Bai. Hizlariak teknikariak ziren, baina teknikari papera ere ez zuten bete. Erraustegi, kartzela eta



EÑAUT ZURIARRAIN, ZUBIETAKO HERRI BATZARREKO ALKATEA BI URTEZ. DATORREN URTEAN, IMANOL AZPIROZEK HARTUKO DU BERE ARDURA.

etxebizitzak hemen jartzeko zergati eta irizpideei buruz galdetu eta ez zegoen inolako irizpiderik, ez zuten ezer erantzuten. Nahiz gustukoak ez izan, gutxienez erantzun tekniko batzuk bota izan balituzte. Baina lotuta sentitzen zirenean, ordenagailuan Donostiako planoak jarri eta harekin pentsatzen zutela zioten. Justifikazina da. Hitzaldi amaieran, herritarrek galdetu eta galdetu ari ziren, jendea ikaratuta baitago, base-ri asko dago eta etorkizuna kolokan.

N. Ematekotan, erantzunak teknikari batek eman ditzake.

E. Z. Ez dute irizpiderik. Kartzelarentzat 24 hektareako eremua dute. Hamabost kartzelarentzat, eta beste bederatzia? Bideak doazela erantzuten dute. Penagarria. Herritar batek esan zidanez, ez zuen halakorik espero. Teknikari hauek Zubietara eza gutu eta herritarrei egokitu zaiena hori guztia dela onartuko zutela uste zuten.

N. Argumenturik gabe, beraz?

E. Z. Ezer ez. Herria haserre zegoen. Baratzetik bizi diren herritarrek daude. Egingo ez den esperantza izan arren, Zubietako zer berdura jan behar da, erraustegia bertan egiten baldin bada? Zubietako baratzak nolakoak izango dira? Herritarrek planaren onurei buruz galdetzen zuten. Erantzuna, Lasarte-Oriako tren geltokia hipodromoraino ekartzeko saiaturik zirela. Alde horretatik begiratu beharko genukeela. Autobusik ere ez dugu eta. Hain zen tristea. Herria minduta dago, galderak egin eta egin eta ez zutelako erantzunik jasotzen. Etortzeko aitzakia ugari jarri ostean, tramitazioa egitera agertu eta joan ziren. Hasieran esan zuten, herritarren kezka eta iradokizunak apuntatu eta jasoko zituztela. Horiek guztiek ez dakigu zer bide jorratuko duten.

“Erronka ugari ditu Herri Batzarrak”

NOAUA! Zertan da Herri Batzarraren eta Donostiako Udalaren arteko hartu-eman?

Eñaut Zuriarrain. Udal hauteskunde ofizialen ostean, Odon Elorzarekin bildu ginen. Lehen hartu eman bezala ondo joan zen. Han agindu zuen, urte bukaerarako nobedadeak eta denbora askoan eskatutako administraria izango genituela. Irailean, Eva Salaberria auzoetako teknikariari eta Duñike Agirrezabalaga Ezker Batuko zinegotziari, biei esan genien zein ziren geure lehentasunak. Ordutik, astero deika aritu gara, irailean agindutako bilera hura noizko izango zen galdezka. Proiektu Orokorraren aurkezpena zetorrela ikusita, bilera baterako deitu ziguten. Momentuz Donostiak, Usurbilek eta Zubietak lehen zuen bilerak egiteko ohitura berreskuratu-k dela dirudi.

N. Halako egoeretan, zubietarren erabakitze gaitasunaren gaia azalazten al da?

E. Z. Bere garaian, apustu garrantzitsua egin zuen Zubietak kaskoaren segidan 300-400 etxebizitza eraikitzeke. Baina ez zen gauzatu. Eta orain etorri da, etorri den guztia. Zubietak izaera juridikoa edo ahalmen administratiboa lortzeko lehentasuna du. Horretarako, herri izan behar dugu.

N. Legegintzaldiko lehen urtea bete da, nola joan da?

E. Z. Makroproiektu horiekin guztiekin zer erronka dugun ikusita, Zubietak duen ahalmen txikiarekin



ZUBIETARREK BEHIN BAINO GEHIAGOTAN EUREN DESADOSTASUNA, EZINEGONA, KEZKA ETA HASERREA AGERTU IZAN DUTE BERTAN GAUZATU NAHI DITUZTEN PROIEKTU ERRALDOIEN AURREAN.

egin dezakeen bidea, ez da handia. Baina gure txikitasunean, egiten ditugu geure gauzak. Presente gaude leku askotan. Gure txikitasunean, balorazioa positiboa eta emankorra izan dela esan daiteke.

N. Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen erronkak?

E. Z. Bideen egoera hobetu edota errebote plaza berritzea. Bestalde, Aldundiarekin hor gabiltza, ia autobus zerbitzua martxan jartzen dugun. Erronka handietako bat izango da, herriaren beharren baitan. Atez ateko bilketa sistemarekin hasteko ere desiatzen gaude, egin nahi dutena alferrikakoa izango dela erakusteko. Horri herriak emango dio buelta. Txiki gara, txiki izaten jarraituko dugu, baina ez gaituzte txikituko.

“Herri anitza eta bizia gara”

NOAUA! Santio jaiak gertu ditugu. Zubietarren elkarlan giroaren beste adibide bat?

Eñaut Zuriarrain. Erraustegiak, kartzelak, etxebizitzak, pankartak egin, prentsaurrekoa eskaini, hitzaldiak antolatu edota bide bazterrak garbitzea... Lana da, borroka, baina herri giroa sustatzeko bide ederra. Hala ere, guztia ez da beti borroka, jaiak ere hor daude. Herri anitza eta bizia da Zubietak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Berritua dator pintore ikastaroa

Irailean hasiko da eta lan-praktikak egiteko aukera izango da

Udazkenean hasiko da Usurbilgo udaletxeko Enplegu Sustapen Departamenduak antolatu duen pintore ikastaroa. Baina dagoeneko izena emateko epea ireki da. Orain arte, langabetuei zuzendutako ikastaroa zen, baina ikasturte berrian, lanean direnek ere ikastaroa osorik edo moduluka egiteko aukera izango dute. Gainera, ikastaroa egiten duten ikasleek praktika profesionalak egiteko aukera izango dute. Hori guztia gutxi balitz, ikastaro honen bitartez Profesionaltasun Ziurtagiria lortuko dute parte hartzaileek.

INEMek diruz lagunduta eta Europako Gizarte Fondoak kofinantzaturik, pintore ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak. Irailaren 15ean hasiko da ikastaroa eta 2009ko martxoaren 24a arte luzatuko da. Guztira, 615 ordu. Eskolak Aginagako pintura tailerrean eskainiko dituzte eta goizeko ordutegian, 8:30etik 13:30era.

615 ORDUKO IKASTAROA

“Ikastaroa bukatu ondoren, ikasleak pintura nahiz papereztatze lanetan aritzeko gai izango dira”

Orain arte, langabezian zeudenei mugatuta zegoen ikastaro hau. Baina aurten lehen aldiz, lanean direnek ere prestakuntza honetaz baliatzeko aukera izango dute. Hori bai, lehenasuna langabetuek izango dute. Lanean direnak ez dira ikasle goaren %40 baino gehiago izango.

Ikastaroa bukatu ondoren, ikasleek pintura nahiz papereztatze lanetan aritzeko gai izango dira: lanaren antolaketan, pintura plastiko eta akrilikoen ezarpena, barnizatuak, lakatuak, esmalteak, papereztatzeak... Arestian aipatu



IKASTAROA AGINAGAKO PINTURA TAILERREAN ESKAINIKO DA, IRAILETIK AURRERA.

bezala, teknika ezberdinak ikasteaz aparte, lan hauetan aritzen diren enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute.

Gehienez 13 ikasle

Lanerako prestakuntza ikastaro honetan, gehienez, 13 pertsona izan-

go dira parte hartu ahal izango dutenak. Beraz, taldea mugatua izanik, ikasleek atentzio berezia jasoko dute.

Ikastaro honek bi zentzutan gaituko ditu ikasleak: alde batetik, obrako edozein margo-lan egin ahal izateko; eta bestetik, lan espezializatuak egiteko.

Lanean direnek ere izena eman dezakete

Araudia aldatu egin denez, Lanbide Heziketako bi modalitateak, Lanerako Prestakuntza eta Etengabeko Prestakuntza, bakar batean integratuak izan dira. Ondorioz, langileak ere aukera izango dute langabetuentzat diseinatutako ikastaroetan parte hartzeko.

Profesionaltasun Ziurtagiria

Usurbilgo Udalak pintore ikastaroa emateko dirulaguntza lortu du eta aipaturiko araudiari jarraituz, nahiz eta langabetuei zuzenduriko ikastaroa izan, langileek ere parte hartzeko aukera izango dute, gehie-

nez ere %40a izatera iritsi daitezkeelarik. Kasu honetan, 5 izango dira pintore ikastaroan onartuko diren langileak (gainontzeko plazak langabezian direnei zuzenduak izango dira).

Ikastaro honen bitartez, Profesionaltasun Ziurtagiria lortuko dute ikastaroa osatzen duten ikasleek. Lanean direnen parte hartzea bultzatzearen, eskaintza modularra ezartzen da. Hau da, ikastaroa zatika egiteko aukera izango dutela jada lanean diren ikasleak. Zatikako akreditazio metagarria ahalbidetuko zaie ikastaroa moduluka osatzen dutenei.

Ikasleek inguruko enpresetan egingo dituzte lan-praktikak

Pintore ikastaroa bukatu eta gero, ikasleek lan merkatua gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Usurbilgo Udalak, praktika haiek hobeto adostu eta gauzatzeko, lankidetzaz-jarduera batzuk jarri ditu martxan. AGRUMAP pintoreen elkartearekin adostutako akordioari esker, pintore ikastaroko ikasleek inguruko enpresetan arituko dira praktikak egiten.

Iaz, ikastaroa gainditu zuten 10 pertsonetatik, 8 ikasleek lan egiten dute edo lan egin dute lanbide honetan. Guztiak, gutxienez, 6 ikasleek hilabetez edo gehiagoz lan egin dutelarik, pintore bezala.

Lan munduan murgiltzeko aukera aparta

Eta hauetatik, 5 ikasleek ikastaroa eta praktikak bukatu zituztenetik lanean diraute.



USURBILGO UDALA LANKIDETZAN ARI DA AGRUMAP
PINTORE ELKARTEAREKIN.

Beraz, pintore ikastaroa gainditu dutenen %80ak lana lortu du ikastaroa amaitu ondoren.

Eta %50ak lana urtebetez baino

gehiagoz mantendu du eta gaur egun jarduera horretan dirau. Azpimarratzeko datuak dira, ezbaierik gabe.

Irailean hasi eta martxoan amaituko da ikastaroa

Ikastaro hasiera: irailak 15.
Ikastaro amaiera: martxoak 24.
Orduak: 615.
Ordutegia: 8:30-13:30,
asteleheneretik ostiralera.
Lekua: Aginagako Pintura Tailerra.
Ikastaroaren helburu orokorra:
Ikastaroa bukatu ondoren, ikasleek

pintura eta paperezatzeko lan desberdinak egiteko gai izan behar dute, modu autonomo eta arduratsuan.

Informazioa, izen-ematea:
Usurbilgo Udala, Enplegu Sustapen Departamendua.
Telefonoa: 943 37 19 51.



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE

**GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Ariztitxo 8, beheak · 943 363 348 · 609 888 021

Aginagan ere, udako txokoetan

Hiru eta hamahiru urte arteko hemeretzi haur eta gazte-txok izena eman dute aurtengo Aginagako txokoetan. Aisialdi eskaintza horren bidez, urtean zehar ikastetxe desberdinetan dauden aginagarrek, ezin hobeto pasatuz, elkar ezagutzeko aukera paregabea dute. Hondartzara irteerak, ludotekan jolasak, globo gerra... Aspertzeko tarterik ez dute izango hila amaitu artean.

Usurbilen bezala, Aginagan ere uztaila hasieratik abian dira sasoi honetarako antolatzen dituzten txokoak. Udako aisialdi eskaintza, batentzat baino gehiagorentzat, urtean zehar larunbatero ludotekan izan ohi duen hitzorduaren jarraipena izango da. Besteentzat aldiz, nobedadea, halako ekimen batean parte hartzen duten lehen aldia. Baina guztientzat, ondo pasa eta elkar ezagutzeko aukera eta topa gune paregabea.

Irteerak inguruko herrietara

Taldearen ardura duten bi monitorerekin batera, dagoeneko Getariako hondartzan izan dira, uda beteko eguraldiak lagunduta, bainu freskoa hartzen. Egun hauetarako, irteera gehiago programatuak dituzte; Aiako igerilekuetara edota Zubietako Santio jaiak hastean, Haurren Egunekeo ekitaldietan parte hartuko dute.

Hala ere, kanpora joan gabe, Aginagan bertan primeran pasatzen dute. Globo gerran aritu dira, elkarren arteko indarrak neurtzeko herri kirol probak ere hor dituzte, baloiari kolpe ederrak ematen ere oso gustura aritzen dira, beste hainbeste soka saltoan... Baina gune kuttunena ludoteka dute. Bertan nahi adina joko eta denbora pasa aurkitzen baitituzte; ping-pong mahaia, jolasak... Lehen egunetan, bertan margotu dituzte bakoitzak norbe-izena daraman kamiseta. Eskulanetan



AGINAGATIK KANPO IKASTEN DAUDEN IKASLEAK ERE ANIMATU DIRA AURTENGO EUSKAL TXOKOETAN.

duten trebezia erakusteko, San Fermin jaiak hastear zirela, zezen maskarak ere egin eta handik egun gutxira burutu zuten entzierroan baliatu zituzten. Ludoteka beraz, gustuko sorlekua dute gaztetxoek.

Horregatik, "Noiz igo behar dugu gora?" gaztetxoek monitoreei behin

baino gehiagotan egiten dieten galdera da. Ludoteka erreferentzia puntu eta babes gune ezin egokiagoa da, bereziki eguraldi txarra egiten duenean. Baita parean duten pilotaleku estalia ere. Uztaileko lehen egunetik hila amaitu arte, goiz dibertigarri zein entretenigarriak igarotzeko aukera ederra dute.

Elkartasuna nagusi

Aniztasunak definitzen du ondoren Aginagako txokoetako gaztetxo taldea. Adinari begira, urte kopuru desberdinetako gaztetxoak elkarrekin egoten dira. Denek batera parte hartzen dute antolatzen diren ekintzetan. Alde horretatik, azpimarratzekoa da helduenek txikienei laguntzeko duten joera. Kasu askotan, Aginagako eskolatik datorkien ohitura. Han ere ikasgela berean adin desberdinetako aginagarrak batera egoten

baitira.

Jatorriari begira, ere anitza da txokoetako hemeretzikoa. Tartean dira, uda pasatzera Aginagara etorri ohi den errusiar eta galiziar bana. Aipatzekoak baita, ikasturtean zehar Aginagatik kanpo, Usurbilen edota Donostian ikasten dutenen partaide-tza. Aberasgarria da beraz, Aginagan bertan bizi diren gaztetxoak elkar ezagutzen joateko, uda parterako antolatzen duten aisialdiko ekimena.

Xukin Andoni Errazkin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

663 08 76 71 • USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
oraintza

943 37 10 42
943 37 10 42
943 37 10 42

Udalak kultur arloko dirulaguntzen banaketa egin du

Udalak kultur egitasmoak garatzeko egindako dirulaguntza deialdira aurten 27 elkarte aurkeztu dira, iaz baino hiru gehiago. Aurkeztutako ekintzak, berriz, 155 izan dira, iaz baino 23 gehiago.

Aurkeztutako ekintzak mota askotakoak izan dira: ikastaroak, kultur ekintzak, udako ekintzak...

Kultur Elkarteen artean guztira 100.000 euro banatu dira. Elkarte bakoitzak jaso duen dirua antolatutako ekintzen arabera izan da.

Aurkeztutako eskaerei begiratuta,

ondorio hauek behintzat nabarmenak dira:

- Usurbilen kultur elkarte ugari daude, gero eta gehiago gainera.

- Herriko kultur dinamika bizirik dago: urtean zehar ekintza ugari egingo dira.

Udalak egokia ikusten du kultur programazioa bereziki elkarten adierazpen eta dinamizazioan oinarritzea. Modu honetara, Udalaren zeregina bikoitza da: batetik, elkarteak programa dezaten bultzatu eta baliabideak eskaintzea, eta bestetik, elkarteek antolatutako ekintzen osagarri izatea.



ZIRIKA ZIRKUSEKDOAK JAIETAN
IZAN ZIREN FRONTOIAN.

Jaietako argazkiak, noaua.com webgunean

Santixabeletan argazki asko atera sgenituen. Horieta batzuk ikusgai jarri ditugu gure webgunean, noaua.com helbidean. Argazkitegian aurkituko duzue "Santixabelak 2008" karpeta. Bestetik, herritarrek ere hainbat argazki bidali dizkigute. Horieta batzuk dituzue hauexek. Zuk ere gauza bera egin eta sarean ipiniko ditugu ikusgai. Helbide honetara igorri argazkiak: erredakzioa@noaua.com



Argazkia: Carlos eta Maider



Argazkia: M. Muñoz



Argazkia: M. Muñoz

	Belazeak	▼	Baliatua	▼	Ikuskizun	▼	Joan den urtea	▼	Emaztearen ahizpak	
	Gizon izena		Ergel				Bokala			
	▶		▼		Meatzeak	▶	▼		▼	
					(Erroa) Joan					
	Errepika	▶			▼		Errep., txori mota	▶		
	Pl., mila kilo						Bokala			
Organo nagusia	▼	Emakume izena	▶	▼			▼	1	▶	
Pikorra, txintxarra		Erregeen ikurrak						Eni		
▶		▼				Potasioa	▶	N birritan	▶	
						Kontsonantea		Lasaia	▼	
* IRUDIAN	▶					▼		▼		
Hori antzekoa										
▶						Zirt-..., erabaki!	▶			
						Bokala				
Herri jokia	▶				Ebaki sakona	▶	▼			
Gabezia					Aluminioa					
▶			Nasa	▶	▼	Neona	▶		Potasioa	
			Bokala			Röntgen			Bokala	
Neka, una	▶		▼	Bizkaieraz, sobera	▶	▼	Otx!, Atx!	▶	▼	●

*IRUDIAN: Gipuzkoako kostaldeko herria.

Soluzioa: 17. orrialdean.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FORDAK · POSTA

www.noaia.com

USURBILGO ATARIA

Otar-Goxo
Elitragutak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

CLIMATA-T
Klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Txirrindulariak animatzen



Frantziako Tourra Pirinioetatik pasa zen aurreko asteburuan. Usurbildik autobus bat abiatu zen haraino. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu baina pri-

meran pasa zuten lasterketa aurretik eta baita ondoren ere. Haimar Zubeldiak eta gainontzeko txirrindulariek jaso zituzten usurbildarren animoak.

Bola Txapelketako emaitzak

Uztailaren 6an jokaturako Santixabel jaietako Bola Txapelketako emaitzak honako hauek izan dira: lehena Martin Lizeaga; bigarrena Zeferino Agirre eta hirugarrena Jesus Intxausti.

Usurbildar gizonezkoen txapelketan:

1. Prudentzio Olano, 23
2. Imanol Zarauz, 19
3. Julian Borda, 19
4. Javier Erasun, 17
5. Enrike Lopetegi, 16
6. Joxemi Otaegi, 15
7. Ramon Uranga, 15
8. Iker Artola, 14
9. J.M. Ikutza, 14
10. Koldo Larrañaga, 13

Usurbildar emakumezkoen txapelketan:

1. Labrit Zabala, 20
2. Maria Angeles, 20
3. Rosa Gallego, 19
4. Lurdes Ostolaza, 19
5. Garbiñe Granados, 18
6. Begoña Maiztegi, 16

Pirinioetatik gustura itzuli ziren Andatza elkartekoak

Andatzakoak gustura ibili ziren Pirinioetan. Aurreko asteburuan abiatu ziren Pirinioetako Eriste herrira autobusez. Zeruan laino beltzak ageri baziren ere, Eristera iritsi eta Forcau/Angel Orus aterperako bideari ekin zion 28 laguneko taldeak.

Andatzakoak azaldu digutenez, "aterperako bidean ekaitzak jo zuen eta trumoi eta txingor artean blai eginda iritsi ginen. Arropa lehorra jantzi eta arratsaldea aterpean pasa genuen, batzuk

tertulian, besteak musean eta gainontzekoak lokuluxka bat botatzten.

Igandean, goizeko 5:30ean jaiki eta a ze sorpresa! Ezta laino bat bera ere zeruan.

Bardamina (3.079 m) mendira igotzeko asmoa bagenuen ere, azkenean, Forqueta (3.007 m) mendira igo ginen. Ibillbide zoragarriaren ondoren, gailurrean atsedean hartu, inguruko ikuspegiak gozatu eta Eriste herrirako bideari ekin genion mendian behera".



ERISTE HERRIAN PASA ZUTEN LARUNBAT GAUA ETA IGANDEAN FORQUETA MENDIRA IGO ZIREN.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

© 943 69 68 52 · 620 800 186

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Autobus Orduetgia

Asteleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25		09.30	09.40	09.45	10.10
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
12.10	12.30	12.35	12.45			10.30	10.40	10.45	11.10
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	10.45	10.55	11.05	>>	11.30
13.10	13.30	13.35	13.45		11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	12.45	12.55	13.05	>>	13.30
14.10	14.30	14.35	14.45			13.30	13.40	13.45	14.10
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	13.45	13.55	14.05	>>	14.30
15.10	15.30	15.35	15.45		14.30	14.40	14.45	14.45	15.10
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25		15.30	15.40	15.45	16.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
18.10	18.30	18.35	18.45			16.30	16.40	16.45	17.10
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
19.10	19.30	19.35	19.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00		19.30	19.40	19.45	20.10
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
					21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Tren Orduetgia

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

00.00 Asteleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Asteleheneretik Igandera eta JAIEGAN
 (M) Udan bakarrik 08/06/23-08/09/07
 Bezeroen arretarako bulegoa @ 902 54 32 10 www.euskotren.es i atcliente@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

- Uztailak 17, osteguna**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
 - Uztailak 18, ostirala**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
 - Uztailak 19, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*
 - Uztailak 20, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
 - Uztailak 21, astelehena**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
 - Uztailak 22, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
 - Uztailak 23, asteazkena**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
 - Uztailak 24, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
 - Uztailak 25, ostirala**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
 - Uztailak 26, larunbata**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*
 - Uztailak 27, igandea**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
- GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
 Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi
 kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
 *Usurbilen, soilik eguerdina arte

Zubieta-Donostia TST autobusak

- ASTEGUNETAN**
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45
- LARUNBATETAN**
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
- JAI EGUNETAN**
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldeketa beharrezkoa da
 *: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Agenda !!

KzGunea

IT ZIURTAGIRIA, AZTERKETAK

Uztailak 18, 18:00-20:00

Uztailak 24, 16:00-18:00

Uztailak 28, 16:00-18:00

MINTEGIAK

Sinadura elektronikoa

Uztailak 21, 16:00-18:00

Justizia ezagutu ezazu

Uztailak 22, 18:00-19:00

KzGuneako foroak eta laguntza

Uztailak 22, 19:00-20:00

Kontsumitzailea sarean

Uztailak 24, 18:00-20:00

Sinadura elektronikoa

Uztailak 30, 16:00-18:00

Uztailean, KzGunea arratsaldez. Ordutegia: 16:00-20:00. Kale Nagusia, 37. Tf: 943 36 14 12.

Uztailaren 24an

hasiko dira Zubietako Herri Jaiak

Santio bezperan hasiko dira jaiak Zubietan. San Inazio eguna bitartean, asko dira Jai Batzordeak prestatu dituen ekitaldiak.

Uztailaren 24an osteguna, arratsaldeko 19:30ean hasiko dira festak buruhandien kalejirarekin.

Baina egun handietakoa 25ekoa izan ohi da. Goizeko 9:00etan esna-deia eskainiko du Donostiako Txistulari Bandak. Arratsaldean, XI. Trikitixa Txapelketa jokatu da eta gauz bertsolariak: Jexux Mari Irazu, Beñat Gaztelumendi, Xabier Silveira eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzaile lanetan Xabier Sukia arituko da.

Uztailaren 26a Oilasko Biltzaileen Eguna izango da.

27koa, ordea, Jubilatuen Eguna. Lehen aldiz, Zubietako Sagardo Eguna ospatuko da egun horretan.



DONOSTIAKO TXISTULARIEK ESNA DEIA ESKAINIKO DUTE SANTIO EGUNEAN.

Eta uztailaren 28an astelehena, Umeen Eguna. Gaupasa eguna San Inazio bezperakoa izango da, Mendeku Itxua eta Etsaiaken kontzertuarekin.

Jaiak San Inazio egunean amaituko dira, errebote partidekin eta Ansorregi eta Larrañagaren trikitixa saioekin.

Datorren asteko hala ere, NOAUA!n jai ei buruzko gehigarri berezia argitaratuko dugu.

Soluzioa !!

	⊕	B	⊕	B	⊕	E	⊕	I	⊕		
	K	E	P	A	⊕	M	E	A	K		
	⊕	L	E	L	O	A	⊕	Z	O		
⊕	B	⊕	T	A	T	I	A	N	A	⊕	I
B	I	K	O	R	R	A	⊕	K	⊕	N	N
⊕	H	O	N	D	A	R	R	I	B	I	A
H	O	R	A	I	L	A	⊕	Z	A	R	T
⊕	T	O	K	A	⊕	Z	A	U	R	I	A
E	Z	A	⊕	K	A	I	⊕	N	E	⊕	K
⊕	A	K	I	⊕	L	A	R	⊕	A	I	⊕

Soluzioa: Hondarribia

Udalaren lan-deialdia

Usurbilgo udalean, Administrari Laguntzaileak aldi baterako kontratatze edo interinoki izendatzeko beharrak sortzen direla eta, momentu honetan ez dago indarrean inolako lan poltsarik.

Administrari laguntzaileen lan poltsa berriak egiteko premiazko prozedurari ekitea beharrezkoa dela aipaturiko aldi baterako beharrei erantzuteko.

Kontutan harturik, indarrean dagoen legegialdi ematen dizkion eskumenak erabiliz, eta batez ere, honako xedapen hauek:

- Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituzten apirilaren 2ko Legearen 21.1.g) eta 102 artikulua.
- Enplegatu Publikoaren Oinarriko

Estatutuaren 7/2007 Legearen 10., 11., 55. eta 56 artikulua.

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 33. artikulua.

Honen bitartez Alkatetza honek honako hau, erabaki du:

- Usurbilgo udaleko Administrazio Orokorreko Eskalan Administrari Laguntzaileak interinoki aldi baterako izendatu edo lan-itunpeko Administrari-Laguntzaileak kontratatze sor daitezkeen beharrak hornitzeko lan poltsa osatzea. Lan-poltsa honen iraupen epea honako hau izango da: 2011ko irailaren 30a.

- Aipaturiko lan poltsaren zerrendaren osaketa arautzen duten Oinarriak onartzea.

JOSUE ARANZAZISTROKI

IGELTSERITZA eta PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ERRAZKIN Igeltsaritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K / Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

ETXEBIZITZA

- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Txaramunto etxean. Deitu 19:00etatik 21:00era 607582968

telefonora.

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabilta. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megan Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Neska euskaldun bat behar da Usurbilgo Kinkildegian lan egiteko. Interesatuak deitu 609099824 / 943214508 telefonora.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- "Agiña Piperrak" enpresak, emakumei zuzendua. Uztailearen erdi aldera hasi eta urrira arte lana egin nahi duenak piperrak ontziratzen azaldu dadila enpresatik goizeko 9:00etatik 13:00era. Laneko orduetgia goizeko 06:00etatik 14:00ak arte izango litzateke, astelehenerik ostiralera.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Irailean hasteko eta asteen hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldean), bi ume zaintzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabilta. Orduetgia flexibilitate izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrek emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500

- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarrégi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko dispoñibiltatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Arropadenda batetarako altzariak eta mostrodore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- Betaurreko batzuk galdu genituen ekainaren 20an, arratsaldean, Ardi Beltz garagardotegi parean. Aurkitu badituzu: 943 370 249.
- Txandal baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somiera eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkixoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Elaia!!

Uztailearen 15ean egin duzu zure lehenbiziko urtea. Zorionak eta muxu potolo bat etxekoan partez!

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefono zenbakira: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com

usurbilgo sagarra, udako freskagarri naturalena

Usurbilgo sagardotegi eta baserrietako sagardoak zure eskura; Astiazaran, Saizar, Urdaira, Arratzain, Aginaga, Gorostidi, Olano eta Aialde berri.



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Alkartasuna Eikartea Baserritar Kooperatiba

alkartasuna@usurbil.com | Ugarte industrialdea 12 | ☎ 943 361 114

www.noaua.com
usurbildarron zerbitzura



The screenshot shows the Noaua!! website interface. At the top, there is a navigation bar with links for Zerbitzuak, Noaua!!, Festak, Hemeroteka, Loturak, Foroak, and Blogak. The main content area features several news items:

- Kirul arloko hitzarmena berriro dute Buruntzaldeko lau udalek** (2008-07-12): Andoain, Lasarte-Oria, Umieta eta Usurbilgo udalek kirul arloko hitzarmen berria sinatu dute gaur eguerdian. Heburu nagusia, herriarri eskaintako kirul zerbitzuak noaitzea eta euskalduntzea da. Gaur sinatutako testuak, indarrean dagoen hitzarmen...
- Kultur arloko diru-laguntzak banatu dira** (2008-07-13): 27 ekarriek aurkeztutako 155 kultur optamoiarako 100.
- Udalaren lan-delaldia** (2008-07-11): Usurbilgo udalaren Administrazio Laguntzaileak aldi baterako kontratatutako edo interiocki izendatzeko beharrek sortzen direla eta momentu honetan ez d...
- "Trastornos" antzezlana, igandean Sutegin** (2008-07-11): Gaiotasunetik opten den erreflexioa da "Trastornos", igandi honetan Sutegin eskainiko duten antzezlana.

On the right side, there is a section for ARGAZKIA ALBISTE, a calendar for 2008, and a section for FOROA - azkenak. The bottom of the screen shows a keyboard.